

Demokraziaren berrikuntza: Zein izan daiteke guretik ekarpena? Nazioarteko begirada eta kontrastea

Ekainak 25, 9.30 – 14.00

Arantzazulab, Gandiaga Topagunea

Mundu osoan demokrazia liberalak zalantzan jartzen dituzten olatu autoritario bat ikusten ari garen une kezagarria bizi dugu. Demokraziaren krisiaz hitz egiten da, bestalde, hainbat modutan islatzen delarik hori egun mendebaldeko herrialdeetan: demokraziaren oinarritzko instrumentuekiko mesfidantza, atsekabe politikoa, herritarren egonezina eta desatxikimendua, jarrera totalitarioak eta indibidualistak haztea... Testuinguru honetan, demokrazia sistemen aurkako mehatxu gero eta handiagoak bizitzen ari garen unean, demokraziaren aldeko apustua egin behar dugula uste dugu. Kultura demokratikoan sakondu.

Gure herriko erakunde ezberdinetan demokrazian sakontzeko egiten ari den apustua argia da (eta garaiotan ezohikoa) eta aipagarriak dira berrikuntza politikoa eta gobernatzeko era berriak sustatzeko gobernuan, alderdietan, herri-erakunde ezberdinetan, askotariko gizarte eragileek sustatuta abian diren estrategiak. Euskal Herriko testuinguruak, gure tradizioak, erakundeen lidergoak eta apustuak, abian diren ikerketa lanek, gizarte eragile eta berrikuntza talde ezberdinek sustatutako egitasmoek, Arantzazulab bezalako berrikuntza zentroek, besteren artean arreta ematen dute nazioartean.

Bestalde, asko dira munduan demokrazian sakontzeko ikertzen eta erantzun berritzaileak emateko lanean ari diren pertsonak, taldeak, erakundeak, eta gobernu aurrerakoiak. Horiek guztiak erakarri nahi ditu ikastaro honek, gure balio sistematik demokraziaren berrikuntzako eztabaida globaletan egin dezakegun ekarpena azaleratzeko, eta ekarpen hori balioan jartzeko. Horretarako gainera, nazioarteko punta-puntako adituak izango dira hizlari eta solaskide, nazioarteko begirada honetatik guretik esparruan egin nahi den ekarpen horren kontraste bat egiteko.

Finean demokraziaren berrikuntzan eta gobernantzaren eraldaketan jauzi kualitatiboak emateko gako batzuk jasotzeko baliatu nahi da ikastaro hau.

Helburuak

- Kultura demokratikoan eta komunitatearen eraikuntzan sakontzeko tokiko erakundeen zein eragileen estrategiak eta egitasmoak ezagutu
- Demokraziaren berrikuntzako debate globalei guretik eta Euskal Herriko balio sistematik egin dezakegun ekarpenean sakondu, eta tokiko zein nazioarteko aditu ezberdinekin kontrastera eraman
- Demokrazian sakontzeko nazioarteko adituen ekarpenak eta begirada jaso
- Kultura demokratikoan sakontzeko beharra euskal gizartean aldarrikatu, gaia eztabaida publikora eraman eta baita erakunde sistema elkarriketa hauetara erakarri ere

Egitaraua

9.00 – 9.30 Erregistroa

9.30 - 9.45 Ongi etorria eta ikastaroaren aurkezpena zuzendarien eskutik

9.45 - 10.40 Hitzaldia. Hélène Landemore (Yale Unibertsitatea, AEB, Zientzia politiketako irakaslea eta ikerlaria): “Merkatua, foroa eta epaimahaia: demokraziaren ereduak berrikusten” (*“The market, the forum, and the jury: revisiting models of democracy”*)

10.40 – 11.35 Hitzaldia. Michael Saward (Warwick Unibertsitatea, Erresuma Batua, Politika eta Nazioarteko Ikasketetako irakaslea eta ikerlaria): “Demokraziaren diseinuaren erronkak” (*“Challenges of Democratic Design”*)

11.35 – 12.00 Atsedena eta kafea

12.00 – 12.45 Mahai ingurua. “Tokiko erakundeen estrategiak eta esperientziak kultura demokratikoan sakontzeko eta komunitate-zentzua indartzeko”.

- Asier Aranbarri, Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza; Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria
- Xabier Otxandiano, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila – Eusko Jaurlaritza; Erakunde Harremanetarako Sailburuordea
- Iosu Arraiz, Diputatu Nagusiaren Alorra - Gipuzkoako Foru Aldundia; Estrategia zuzendaria eta Etorkizuna Eraikiz zuzendaria
- Ainhoa Arrona, Orkestra; Ikerlaria
- Naiara Goia, Arantzazulab; Zuzendari nagusia

12.45 – 13.30 Mahai ingurua. “Demokraziaren aldaerak, agertokiak eta aukerak XXI. Mendean. Arantzazulab-ek sustatuko Ikerketako eta Esperimentazioko egitasmoen arduradunen arteko elkarrikketa”

- Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitatea
- Arantxa Mendiharatz, Deliberativa
- Julen Mendoza, Kogarri
- Maria Ajuria Hernandez, Farapi eta Arantzazulab-eko Kosorkuntza Ekosistema
- Beatriz Belmonte, Better Public Services eta Arantzazulab-eko “Demokrazia aro digitalean” ikerketaren ikerlaria
- Ione Ardaiz, Arantzazulab

13.30 – 14.00 Sintesia eta itxiera (Hizlari nagusiak eta ikastaroaren zuzendariak)

14.00 Bazkaria Gandiaga Topaguneko Hallelan (partaideek elkarrekin hitz egiteko cocktail eran)